

Ikasle agurgarria,

AGINDUA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2022-2023ko ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena..

UPV/EHU-k deialdian aipatutako betekizunak betetzen dituzten ikasleak sartuta duen eskabide bat aurkeztu behar izango du.

Beka hau eskatzeko dokumentu hauek bidali beharko dituzu, **2022KO AZAROAREN 28tik ABENDUAREN 23ra arte (biak barne):**

- **Berariazko baimena** (zure GAUR profiletik eta webetik jaitsi ahal izango duzuna) sinadura eta data jarrita.
- **2022ko urtarrilaren 1ean baino lehenagotik** hasita eta eskaerak aurkezteko epean zehar Euskadiko Autonomia-Erkidegoko udalen batean, **zure auzo administratiboa egiaztatzen duen eskaera-datan eguneratutako errolda-ziurtagiria.**

***Lehen abizena A- L (barne) letratik hasten bada**, dokumentazioa hurrengo posta elektronikora **bidali** beharko duzu: becamovgv-a-l.internacional@ehu.eus

***Lehen abizena M-Z (barne) letratik hasten bada**, dokumentazioa hurrengo posta elektronikora **bidali** beharko duzu: becamovgv-m-z.internacional@ehu.eus

Laguntzak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, hauen ordainketa mugikortasunerako eskarian emandako kontu-zenbakian egingo da.

Horretarako, Nazioarteko Harremanetako Bulegora mugikortasuneko programako nahitaezko dokumentazioa bidalita egon behar da, egonaldiaren amaierako ziurtagiria barne.